

## 2014-2015 ikasturte hasiera ekitaldi ofiziala

2014/09/23

Mondragon Unibertsitatearen 2014-2015 ikasturtearen hasiera-ekitaldi ofiziala Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan (Arrasaten) egin zuen, unibertsitatearen ernamuinean —1947an sortu zen—. Ekitaldian, Mondragon Unibertsitatearen gertaera nagusiak eta erronkak ez ezik, unibertsitateen helburuak ere azaldu zituen errektore losu Zabalak, eta Mondragon korporazioaren eredu kooperatiboa defendatu zuen. Hitzaldi zirrargarria izan zen, eta agintean zortzi urte eman ondoren —abenduan amaituko zaio— agurra aurreratzeko balio izan zion. Lekukoa Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoko egungo zuzendari Vicente Atxari emango dio; 2015eko urtarrilean hartuko du kargua.

Ekitaldi ofizialean, errektoreaz gain, honako hauek hartu zuten parte: Iñigo Urkullu lehendakariak, Cristina Uriarte hezkuntza-sailburuak eta Idoia Peñacoba Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusiak. Horrek 2013-2014 ikasturteko Memoria Akademikoa aurkeztu zuen. Bestalde, Goi Eskola Politeknikoko irakasle Jon Aurrekoetxea arduratu zen irekitze-hitzaldiaz, eta *"Karbono-zuntzezko konpositeak. Etorkizuneko material harrigarria"* izan zuen izenburu.

